


**ezagutzen al
duzu Donostia?**


**Igeldoko
herri-lurra**

Igeldoko herriak bazituen bere herri-lurrak lur komunitarioak zirenak; larreak eta garamanak ziren barruti horiek gehien bat. Lur hauek Mendizorrotz tontorraren ipar-mendebaldean kokatzen dira, *Mikelaitzondo* eta *Altzate* deituriko gainen hegoaldean, itsas-kosta beraien iparraldean geratzen delarik. Herri-lurren ekialdean mendizorrotz tontorra bera eta *Iranguen* baserriko lurrak aurkitzen dira. Mendebaldean, berriz, Orioko udal barrutiaren muga dago. Eremu zabal honen barruan izen ezberdineko hainbat barruti aurki dezakegu: *Zakarro*, *Aintzilarre* (Aginagako Aintzi baserriko larreak), *Arrizorrotz*, *Beotegi*, *Lezka*, *Egiluze*, *Artzabal*, *Txurruta*, *Izko-barrutia*, *Arkumetegi*... Historiaurretik artzain kulturako lekuak zirenez trikuharrak (*Aitzazate*) edota harrespilak (*Mikelaitzondo*) aurki ditzakegu.



Mikelaitzondo harrespila eta Mendizorrotz.

Aintzilarre. Gurdibide ondoko harrizko hesia.



Artzai-bordak ere badira: *Bordaberri*, *Artzabal*. Barruti horietara joaten ziren Igeldoko baserriak, eta baita Aginaga eta Usurbilgo beste asko ere, beren lera eta gurdiekin garoa moztu eta biltzera, baserriko ikuiluetan behien

azpitako bezala erabiltzeko. Ondoren, garoa behiakarekin uahasten zen eta alor, baratz eta belardietarako ongarri (zimaurre) bezala erabiltzen zen. Igeldo Donostiako auzo arrunt bihurtu zenean (joan den mendean) herri-lurrak

galdu zituen. Lur hauetan pinuak landatu ziren. Hainbat suteren ondorioz pinudi haiek galdu egin ziren eta gaur egun lur horietan garodi eta otadiak daude.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

AINHOA taberna


• Pintxoak eta kazuelitak

Sarroeta 90, MARTUTENE

ORTZAİKA

jatetxea

Bataloak - Jaunartzeak
Despedidak - Ezkontzak



Orzaika auzoa - Tfnoak.: 83 32 51/83 30 46 - ORIO